

Homilia urratsak, Ebanjelioaren ildotik

Urteko 6. igandea

2010 Otsailak 14 (C urtea)

Patxi Otamendi

Jeremias 17, 5-8

1 Korintiarrei 15, 12. 16-20

Lukas 6, 17. 20-26

- Lukasen Zorion Dei hauek ez dira batere ez-titsiak. Benetako behar gorrian dauden aldeko aldarrikapena dira. Mateorenean gehiago gorai-patzen ziren “justiziazko gose eta egarri” zirenak, edota “espirituzko pobrezian” zeudenak, ala negarretan zeudenak.

Dena den, fede sakona behar da bazter-aldian edo norbera iraindua denean zoriona hurbil dela sinesteko. Horregatik Zorion Deiak kontsolagarri bai baina esaldi latzak ere badira. Gainera, Lukasek madarikazio esaldiak erasten ditu. Azken aldian sarritan esan izan da Lukasen bertsioa hurbilago dagoela Jesusen hitzetatik Mateorena baino. Alegia, bigarren ebanjelari honek Zorion Deiak “leunduta” azaltzen dituela.

Zorion Dei hauek ez daude soilik “*geroari*” begira, “*orainari*” baizik. Eskakizun etiko dira: negarrean den oro, horretatik ateratzea; gosetean dena, elikagaiak eskura ahal izatea; goibeltasuna pairatzen duenak, kontsolamendua izatea.

- Sermoi hau emateko zenean jarraitzaile eta jende ugari omen zen bere aurrean. Nahiz eta batzuk Jerusalemekoak edo Judeakoak izan, eta besteak Galilea inguruko jentilak, bai batak zein besteak gauza berbera egiten dute: Maisuak egiten zituen sendaketak ikusi. Ia ez dago bi talde horien arteko bereizketarik. Jesusek dioena denentzat balio izango du.

Hitz egiten hasteko dagoenean testuak dio Ikasleei zuzendu zitzaiela. Mateoren bertsioan soilik Ikasleak dira Maisuarekin mendi gora igotzen direnak eta han sermoia entzuten dutenak.

Lukasek ez du Jesusen hizketaldia mendi goian kokatzen, mendi behean baizik: jendea mugitzen den lekuan. Jesusek goi irakaspenak “behe mailan” –edo “maila munduratu”- ematen ditu.

- Aurreko kapituluaren farisearren agertutako joera (5:17-6:11) aldatu nahian dabil Jesus. Farisearren bizi-ikuspegia Jainkoaren gauzetan finkatua zegoen, gizakien beharrei jaramonik egin gabe. Joera hori nahiko zabaldua zegoen gizartean, eta zaila zen bestelako ikusmira proposatzea. Gizakien beharretaz errukitzeko jarrera eta jokabide berriak sustatzeko iragarpena dago hemen. Eta horri heldu beharko diote mugimendu berrian sartu nahi dutenek.

- “Zoriontsuak”. Antzinako Grezian zoriontsu jainkoak eta jainkosak ziren. Gizakiek ez bezala, erabateko betetasuna lortu zuten. Zoriontsu izateko beste munduan bizi eta jainko mailakoa izan behar zenuen.

Bigarren zentzu batean, hildakoek ere zoriontasuna eskuratua zuten. Heriotzaz haratago jainkoen mundura ailegatu eta zoriona bereganatzen zuten. Zoriontsu beste bizitzan izango zinateke.

Hirugarren zentzuan, Grezian aberatsak eta elite mailako jendeak zoriontsu senti zitezkeen, besteak bezalako lan eta egin beharretatik libre zeudelako. Zoriontsu izateko aberatsa izan behar zenuen.

Itun Zaharrean gizalegez jokatzeko zutenak merezi zuten zoriontsu izatea. Zuzen bizi ezkerera guztietako dohainak jasoko zenituen: emazte atsegina, seme-alaba ugari, izen ona, edertasuna, osasuna. Pertsona arruntak baino gauza gehiago eta hobeagoak zituzten zoriontsuak.

Jesusek hankaz gora jartzen du aurreko guzti hori: zorientasuna behartsuak eta jasaten ari direnak merezi dute. Horiek dute Jainkoaren bedeinkapen errukitsua. Ildo horretan, entzuleentzat Jesusen sermoia “kontra-sermoia” zen. Baina jendearengan itzaropena sortu zuen.

Bildutako jendeari Jesusek hitzaz gain, eskakizun bat luzatuko die: etika berri bati heltzea. Benetan Jesusen sermoi honek geure gogoia “ukitu” eta “sutu” dezake. Zerbait mugiarazten diezagukeen hitza da.